



EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK ARLO JURIDIKOAN

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA

Ainara Padilla eta Andrea Arellano

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Belaunaldi berri bat.- III. Hizkuntza Eskubideak.- IV. Hizkuntza Eskubideen maila bikoitza.- V. Aldarrikapenaren edukia.- VI. Hizkuntza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren Printzipio Orokorrak.- VII. Ondorioak.

I. Sarrera

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala edo, eskuarki, Bartzelonako Deklarazio bezala ezagutzen dena, 1996ko ekainaren 6tik 9ra egindako Munduko Hizkuntza Eskubideen Konferentziaren amaieran onartu zen. Egileen artean jite ezberdineko erakunde eta elkarteak daude: 66 Gobernu Kanpoko Erakunde, PEN International erakundeko 41 zentro eta hizkuntza-eskubideen inguruko 41 aditu bildu ziren aldarrikapen hau sustatzeko. Haiek izan ziren Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (HEDU) onartu zutenak, alegia. Hizkuntza eskubideak, bereziki, hizkuntza gutxituak sustatzeko helburuarekin sinatutako adierazpena.

Aipatzekoa da UNESCOren Zuzendari Orokorriari aurkeztu egin zitzaizkion deklarazioa, eta berak hartu zuela bere gain Deklarazio honi zegokion aitortza bideratzea. Horretarako, berriazko batzorde bat sortu zuen, besteak beste, deklarazioaren ezarpenaren jarraipena egiteko munduan zehar. Beraz, nahiz eta UNESCOren onarpen formalik jaso ez, bere egin zuten deklarazio hau erakundeak hein batean.

Proiektua bera ez zen bat-batean sortua izan. Izan ere, bi urte luzez mamitzen joan zen proiektu baten ondorioa dugu.

Oharturik ezinbestekoa zela Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsal bat egitea, lanari ekin zioten hizkuntzen arteko desorekak zuzentzarren, eta horrela hizkuntza guztien errespetua zein garapen osoa bermatzearen, bai eta munduan bake bidezko hizkuntza-politika zuzenerako printzipioak ezartzeko ere.

Denboran atzera egiten badugu, 1994an kokatu beharko ginatke. Zehazki, 1994ko irailean, PEN eta CIEMEN taldeak horrelako aldarrikapen baten beharra ikusi zutenean. Hori dela eta, nazioarteko aditu talde bati Deklarazioa izango zenaren lehen zirriborroa egiteko enkargua egin zion.

Aipatutako talde hori, Nazioarteko aditu talde bat izan zen, zehazki, diziplina desberdinetako partaidez osaturik. Bertara juristak, soziologoak, filologoak, pedagogoak eta sozio-linguistak bildu ziren.

Taldeakideen iritziz, beharrezkoa zen herrialde guztietarako oinarrizko hizkuntza-eskubideak finkatzea eta bateratzea testu batean. Hau da, Deklarazio Unibertsal baten beharra ikusi zuten. Testuaren lehen helburua hizkuntza guztiei eskubide gutxi batzuk aitortzea izan zen, edozein hizkuntzaren hiztunen kasuan aitortu eta errespetatu beharrekoak eta oinarrizkoak, alegia.





Azkenik, 1996ko ekainaren 6an, egin zen Bartzelonan Hizkuntz Eskubideen Munduko Konferentzia eta bertan aurkeztu eta onartu zen, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Deklarazio hau partaideen sinadurarako ireki egin zen eta 90 Estatutako 220 lagunek sinatu zuten. Horrek bultzada eta babes nabarmena eman zion ekimenari.

II. Belaunaldi berri bat

Bartzelonako Konferentziak eta HEDUak lortu zituzten babes-sinadurek garrantzia handia izan zuten. Izan ere, prozesu bati amaiera ematea ekarri zuen eta aldi berean, aro berri baten hasiera zabaldu zuen. Historian zehar hizkuntza-eskubideen inguruan egindako lehenengo aldarrikapena izan zen eta, ondorioz, izugarritzko berrikuntza izan zen.

Harrezkero, ekimen asko garatu dira deklarazio honen gerizpean, horietako asko UNESCOk berak babestuta. Alabaina, oraindik urrats garrantzitsu bat egin beharko luke deklarazio honek bere ibilbidean, gizarteak aitortua dion babesa berme juridiko ere egingo bada.

Lehenago aipatu bezala, onartu bezain laster UNESCOko Zuzendari Orokorriari aurkeztu zitzaion HEDU Bartzelonan, eta honek testua jaso eta aztertzeko konpromisoa hartu zuen. Hain zuten, UNESCOko Kontseilu Exekutiboaren aurrean aurkeztuko zuela hitz eman zuen. Kontseilu Exekutiboak Batzorde bat izendatu zuen dokumentua aztertu eta indarrean jartzen has zedin, Konferentzia Orokorriaren aurrean aurkeztu gabe.

Kontseiluko kide batzuk beldur ziren herrialde batzuetako ordezkariak blokeatu egingo ote zuten deklarazio honen garabidea. Beraz, deklarazioaren izpiritua aintzat harturik, beste bide exekutibo batzuk baliatu ziren bide egiteko HEDUk aldarrikatzen dituen printzipioak praktikara eramateko estrategiari.

Gaur gaurkoz, UNESCOk ez du oraindik bidali deklarazioa Nazio Batuen Asanblada Orokorriera. Beraz, oraindik ez da bilakatu Nazioarteko Hitzarmen eta, ezta horrenbestez, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren eranskin ere. Baina gizarte-eragileen belaunaldi berri bat ari da lanean munduan zehar, helburu hori erdietsi ahal izateko ahalik eta eperik laburrenean. Ekimen horien erakusgarri da, adibidez, Donostian 2016. Urtean onartutako Hizkuntza Eskubideen Protokoloa.

III. Hizkuntza Eskubideak

Zer dira hizkuntza-eskubideak HEDUren arabera?, Zertarako balio dute?, Zein da haien garrantzia?

Mota honetako galderak askotan entzuten dira, kalean, eskolan zein komunikabideetan, baina ez zaie azalpen edo erantzun zehatzik ematen. HEDUari esker, denok dugu “hizkuntza-eskubideen” kontzeptuaren nolabaiteko kontzientzia. Baina, gehienetan, ez dugu oso argi zertaz ari garen zehazki.



Gainera, askotan, beste giza eskubideekin parekatuak izan dira eta ez da argitzen haien espezifikotasuna.





Izan ere, historian zehar asko hitz egin da hizkuntza-eskubideez, baita saiakera ugari egin ere. Horrez gain, nazioarteko hitzarmen ugari jaso izan da hizkuntza-eskubideren bat Europar Kontseiluaren dokumentu eta legerian bertan. Baina, tamalez, beste kontzeptu zabalago batzuen barnean ezkutaturik ere etorri dira. Hala nola, hasieran aipatu bezala, “gutxiengo” kontzeptu zabalaren barnean, gutxiengo horien eskubideetariko bat bezala edota beste giza eskubide batzuen testuinguruan.

HEDUren helburua, beraz, eskubide horiei berezko jitea aitortzea izan zen gehienbat. Ordura zehazki definitu gabe zegoen eskubide bati, marko juridiko bat eskaini nahi zion deklarazioak. Ordura arte argi zegoen gauza bakarra hau zen: pertsona askoren hizkuntz eskubideak ez direla errespetatzen eta baita, beste hainbat pertsona eskubide horiek ez dituztenak, askotan zer diren eskubide horiek jakin gabe. Hori horrela, gero eta argiagoa ikusten da deklarazio honen garrantzia munduko toki askotan.

Hain zuzen ere, hizkuntz eskubideek bere identifikazio argi ezagatik zama handia jasan behar izan dute historian zehar, bere indefinizioa dela eta, gainerako giza eskubideekiko parekotasuna ukatzea ekarri du. Argitasun falta hori izan da arrazoi nagusietariko bat Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala sustatu eta garatzeko

Horrenbestez, HEDU prestatu eta onartu zutenek kontuan hartu zuten hizkuntza-eskubide zuzenen definizioa ezin dela hizkuntzen estatus politiko edo administratiboaren menpe egon, ez eta hiztun kopurua bezalako irizpideen menpe ere. Horregatik HEDUK honako hau adierazten du: *“Deklarazio honen funtsean dagoen printzipioa da hizkuntza-komunitate guztiak eskubide berdinen jabe direla, kontuan izan gabe haien izaera juridikoa edo politikoa zein den; alegia, hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo gutxiengoen hizkuntzarena.”*

IV. Hizkuntza Eskubideen maila bikoitza

Deklarazio honen aburuz, hizkuntz eskubideek izaera bikoitza dute. Batetik, kolektiboa, taldekoa, hau da, hizkuntz komunitateari dagokion eskubide bezala, eta bestetik, berriz, indibiduala edo gizabanako bakoitzarena, hau da, pertsona orori dagokion hizkuntz eskubidea.

Beraz, hizkuntza-eskubideen izaera bikoitz hau, Deklarazioak aintzat hartzen duen printzipioetariko bat da, orain azalduko dugun moduan zehazten dena:

- ▲ Maila indibidualean: Pertsona fisiko guztiok dugu gure ama hizkuntzarekin identifikatzeko eta identifikatua izateko aukera, hizkuntza hori nolakoa den kontutan hartu gabe. Honek suposatzen du norbanakoaren eskubidea dela bere ama hizkuntza ikasteko, hizkuntza horretan derrigorrezko ikasketak burutzeko eta maila ofizialean ama hizkuntza erabiltzeko eskubidea.
- ▲ Maila kolektiboan: Talde orok du izateko eskubidea, talde hori gutxitua edo gehiengoa den kontutan izan gabe eta bere ezagutza ofiziala eta estatusa zein diren kontutan hartu gabe. Taldeak eskubidea izango du bere hizkuntzaz garatzeko, eskolak sortu eta hauek mantentzeko, Estatuko arazo politikoetan parte hartzeko eta arazo politikoetan ordezkaria izateko. Horrez gain, nolabaiteko autonomia maila izan bere arazo propioak kudeatzeko, behintzat Kultura, Hezkuntza eta Gizarte gaietan, alegia.



Laburbilduz eta aurreko guztia kontuan hartuz, argi ikusten da hizkuntza-eskubideen errespetua eta taldeen desberdintasunerako eskubidearen errespetua direla bakearen eta elkarbizitzaren bide bakarrak. Ondorioz, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak zeregin garrantzitsua du gizartean, eta honen premia ezinbesteko da bidezko gizarte demokratikoa eraikiko bada.

V. Aldarrikapenaren edukia

Hizkuntza eskubideen aldarrikapenak arlo desberdinen arabera egituratzen ditu hizkuntza eskubideak.

Lehenik eta behin, jomugan hartzen dituen arloetatik, lehenik eta behin, hezkuntza arloa aipa daiteke. Gaur egun, pertsona orok du edozein hizkuntza ikasteko eskubidea eta hezkuntza izango da eskubide hori bermatzeko bide egokiena, horretarako adituak diren irakasle, pedagogo eta baliabide materialak daudelako hezkuntza eremuan. Leku bateko hizkuntza ikasteak bertako kultura ezagutzea ere ahalbidetzen du eta hori izan beharko da hezkuntza sistemaren oinarria.

Horrenbestez, kulturaren esparruan ere funtsezko dira eskubide hauek. Izan ere, hizkuntzaren bitartez garatuko da tokiko kultura eta hizkuntza komunitate orok du aipaturiko eskubide hori aitortua. Hainbat baliabide egongo dira hizkuntza komunitate tokian kultura eta hizkuntza eskubide horiek bermatu eta bultzatuko dituztenak, hala nola, liburutegi, unibertsitate, museo edota zinemak.

Horrek guztiak komunikabideetara garamatza. HEDUren arabera, hizkuntza komunitateek eskubidea izango dute tokiko hedabideetan egoteko, hala kultura eta hizkuntza bermatu eta zabaltzeko. Horretarako beharrezkoak izango dira hainbat baliabide. Beraz, komunikabideak ere giltzarri izango dira hizkuntza-eskubideen babes-politketan.

Zer esanik ez, administrazio publikoek bere ere ardura handia izango dute honetan. Administrazioari dagokionez, HEDUK aldarrikatzen du hizkuntza komunitate guztei aitortzea hizkuntza-ofizialtasuna. Alegia, edozein izapide administratibo egiterakoan herritarrek eskubidea izatea bere hizkuntzan egikaritzeko.

Gure hizkuntza komunitatean ez dira aipatu ditugun eskubideak osotasunean betetzen. Egia da euskara hizkuntza (ko)ofiziala dela eremu politiko-administratibo batzuetan, baina ez guztietan. Horrez gain, bizikidetzan dihardu gaztelaniarekin zein frantsesarekin, lurraldearen arabera. Interneten, bestalde, lehia handia du ingelesarekin ere. Hori horrela, eta Europar Batasunak berak, Espainiako estatuak (hein batean) eta Nafarroako zein EAEko administrazioek dagozkien eskumenen baitan, euskarari eta euskaldunen hiztun-komunitateei zenbait eskubide aitortu, eskubide horiek ezin dira egikaritu euskararen eremu geografiko osoan hein berean, eta ez dute beti beste hizkuntza-ofizialen adinako estatusa, eguneroko praktikan behintzat.

Hizkuntza eskubideen Aldarrikapen unibertsalak 2. Artikuluan hauxe xedatzen du: “Gizaki orok eskubidea dauka ahoz eta idatziz erabiltzeko justizia auzitegien aurrean, horiek kokatuta dauden lurraldean historian zehar hitz egindako hizkuntza. Auzitegiek lurraldeko hizkuntza propioa erabili behar dute bere barne jarduketan... Edozein kasutan ere, gizaki orok eskubidea dauka ulertzen duen eta hitz egin dezakeen hizkuntza batean epaitua izateko, edo interprete bat dohain eskuratzeko”



Jakina denez, artikulua hau ez da beti eta osotasunean betetzen euskaldunen hiztun-komunitatearen kasuan. Edonola ere, askotan ez dugu oso argi hiztun-komunitate bezala zein diren aitortu beharko litzaizkigukeen eskubideak, eta aitortzen zaizkigun garrantzia. Ikuspegi horretatik, oso jakingarri da zertan diren HEDUren printzipio orokorrak.

VI. Hizkuntza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren Printzipio Orokorrak

Aztergai dugun Aldarrikapen Unibertsaleko lehen artikulua xedatzen du zein den babesten den objektua: Europar lurraldeko hizkuntzak. Hitzarmen honen arabera babesten dira, Lurraldeetako edota gutxiengo hizkuntzat hartzen direnak, eta aldarrikapen hauek egiten ditu:

- Lurralde konkretu batean estatu kide talde batek tradizionalki erabilitako hizkuntzak, estatuko biztanleriarekin konparatuz, talde gutxitua osatzen dutelarik.
- Estatuko beste biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzekiko desberdinak direnak.

Hala ere, lurralde finkorik gabeko hizkuntzak ere babesten ditu hitzarmen honek eta horiek, estatuko kideek tradizionalki erabilitako hizkuntzak dira, estatuko beste biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzekiko desberdinak direnak baina ezin dezakeenak eremu geografiko finko batekin lotu.

Alegia, aldarrikapenaren lehen artikulua hizkuntza-komunitateak ikusten ditu xedatzen diren eskubideen titular, beraz komunitatea osatzen duten pertsonak izango dira hizkuntz eskubideen eskudun. Honako hau izango genuke Aldarrikapenak duen printzipio orokor garrantzitsuenetarikoa.

Ondoren berdintasun printzipioa letorke. Horren arabera, hizkuntza guztien berdintasuna eta babesa bermatu behar da Aldarrikapenaren artikuluek hizkuntza orori gutxiengo eskubide batzuk aitortzen dizkiote bizikidetzaren bermatu eta babesteko bide gisa.

Honen erakusle litzateke Aldarrikapenaren 2. artikulua: “hizkuntz komunitate bat eta hizkuntz talde bat hizkuntz komunitatearen lurraldean elkarbizitzen ari badira, beraien historikotasun desberdina kontuan harturik, tratatu orekatzaile bat izatea gomendagarria da.”

Beste printzipio orokor jakingarri bat, Aldarrikapenaren 12. artikuluan xedatzen da. Horren arabera, hizkuntza erabiltzeko askatasuna bermatzen da arlo publiko zein pribatuan: “gizaki orok eskubidea dauka alor publikoko jardueraren guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa bada.”

Azkenik, arau onuragarriagoaren aplikazioaren printzipioa ere aintzatesten da. Honela do Kartaren 14. artikulua: “Deklarazio honetako xedapenak ezin dira interpretatu edo erabili, Estatu barruko nahiz nazioarteko erregimeneko edozein arau edo praktikak hizkuntza bat bere lurraldean erabiltzeko ezarritako tratatu faboragarriagoaren aurka.”

Honen bitartez Aldarrikapenak babestu nahi duena hau da: hizkuntza baten egoera ezin dela kaltetu, ustezko bestelako onuren mesedetan.

VII. Ondorioak





Ageriko denez, aldarrikapen hau aurrerapen handia da hizkuntza-komunitate guztientzat. Baita berreskuratze-bidean dauden euskara bezalako hizkuntzen etorkizuna bermatze aldera ere. Era berean, agerian uzten ditu eremu honetan dauden gabeziak.

Edonola ere, “aldarrikapen” huts bat ez da inoiz nahikoa. Batetik, hiztunak ahaldundu behar dira; alegia, jabetu behar dira eskubide horiek badagozkiela, eta garrantzitsuak direla haientzat eta haien komunitatearentzat. Era berean, eskubideak praktikan gauzatzeko tresnak behar dira. Besteak beste, hizkuntza-politiken eta hizkuntza-planen irismena ebaluatzekoak. Ildo horretatik, berriro ekarri behar da gogora Donostia 2016 Protokoloa, hain zuzen ere, HEDU praktikan garatzeko onartutakoa.

Bibliografia

IRIONDO ARANA, XABIER (1997): *Hizkuntza eskubideen deklarazio unibertsala: Sorrera, eduki juridikoa eta etorkizuna* (Universal statement of linguistic rights: birth, juridical contents and future)

BERGARA, Ander (1996): *Hezkuntza eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*. Vitoria-Gasteiz

<http://www.behatokia.eus/EU/hedu>